

I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

Foru Aldundia / Diputación Foral

Ogasun eta Finantza Saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 119/2016 FORU DEKRETUA, ekainaren 28koa, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudia aldatzen duena.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2011ko abenduaren 13ko 197/2011 Foru Dekretuaren bidez onartutako Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudiak sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen, sailari tributu-antolamendu foralean ezarritakoaren arabera dagozkion eginkizunak betetzeko.

Ogasun eta Finantza Saileko organoek beren eginkizunak betetzerakoan metatutako esperientziaren ondorioz eta organo horiek eskura dituzten baliabideekin lortutako optimizazioaren ondorioz, beharrezkotzat jotzen da Zergak Kudeatzeko Zuzendariordetzako Zergadunarentzako Informazio eta Laguntza Zerbitzuaren mendeko zenbait atal berrantolatzea.

Halaber, zuzenketa bat sartu da araudiaren 37. artikuluan, kendu egin den kontratazio mahaia aipatzen baitzen.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Ondorioz, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Aldundiak 2016ko ekainaren 28ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.—Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2011ko abenduaren 13ko 197/2011 Foru Dekretuaren bidez onartu zen araudi hori

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2011ko abenduaren 13ko 197/2011 Foru Dekretuaren bidez onartu zen Ogasun eta Finantza Sailaren egitura organikoari buruzko araudian aldaketa hauek egiten dira:

Bat. Berridatzi egin da 8. artikuluko 5. zenbakia, eta hone-la geratu da idatzita:

«*Bost.* Zergadunarentzako Informazio eta Laguntza Zerbitzuaren menpean atal hauek daude:

- a) Erregistroaren eta Jakinarazpenen Atala.
- b) Zerga Informazioaren Atala.
- c) Herritarrei Administrazio Elektronikoko Zerbitzuak Emateko Atala.
- d) Bulego Deszentralizatuak Koordinatzeko Atala.

Araudi honek Zergadunarentzako Informazio eta Laguntza Zerbitzuari esleitzen dizkion eginkizunetarikoz batzuk betetzeko, hainbat udalerritan kokatutako bulego sare baten bidez deszentralizatuko da Zerbitzua, eta sare hori Bulego Deszentralizatuak Koordinatzeko Atalak koordinatuko du.»

Bi. Berridatzi egin da 37. artikuluko 14. zenbakia, eta hone-la geratu da idatzita:

«14. Saileko zerbitzuen ekonomia-txostenen eta gastu agin-duen eskariak eta haiek proposaturiko administrazio kontratuak izapidetzea eta kontrolatzea, haiekin batera elkarlanean.»

Departamento de Hacienda y Finanzas

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 119/2016, de 28 de junio, por el que se modifica el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Hacienda y Finanzas.

El Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Hacienda y Finanzas aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 197/2011, de 13 de diciembre, estableció la estructura orgánica y funcional del Departamento para acometer las funciones que le corresponden de conformidad con lo previsto en el ordenamiento tributario foral.

La experiencia acumulada en el desempeño de las funciones desarrolladas por los distintos órganos del Departamento de Hacienda y Finanzas y la optimización de los recursos disponibles por partes de los mismos hacen necesario que se considere preciso reorganizar alguna de las secciones dependientes del Servicio de Información y Asistencia al Contribuyente de la Subdirección de Gestión Tributaria.

Asimismo, se introduce una corrección en el artículo 37 del Reglamento que referenciaba a la ya suprimida Mesa de Contratación.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

En su virtud, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en su reunión de 28 de junio de 2016,

SE DISPONE:

Artículo único.—Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Hacienda y Finanzas, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 197/2011, de 13 de diciembre

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Hacienda y Finanzas, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 197/2011, de 13 de diciembre:

Uno. Se da nueva redacción al apartado Cinco del artículo 8, que queda redactado en los siguientes términos:

«*Cinco.* Dependen del Servicio de Información y Asistencia al Contribuyente las Secciones de:

- a) Registro y notificaciones.
- b) Información tributaria.
- c) Servicios de administración electrónica a la ciudadanía.
- d) Coordinación de Oficinas Descentralizadas.

Para el cumplimiento de algunas de las funciones que el presente Reglamento atribuye al Servicio de Información y Asistencia al Contribuyente, éste se descentralizará a través de una red de oficinas, ubicadas en distintos municipios, que será por esta sección de Coordinación de Oficinas Descentralizadas.»

Dos. Se da nueva redacción al apartado 14 del artículo 37, que queda redactado en los siguientes términos:

«14. La tramitación y control de las peticiones de informes económicos y órdenes de gasto y de los contratos administrativos propuestos por los distintos Servicios del Departamento, en colaboración con éstos.»

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2016ko ekainaren 28an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Jarduneko Ahalduen Nagusia,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ,
(Ahalduen Nagusiaren 83/2016
Foru Dekretua, ekainaren 17koa batez)

(I-782)

Bizkaiko Foru Aldundiaren 118/2016 FORU DEKRETUA, ekainaren 28koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin-en Foru Katastroaren Erregelamendua onesten duena.

Orain dela gutxi 2016ko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin-en Foru Katastroari buruzkoa, onetsi izanak berrikuntza berezia ekarri du erregistro administratibo horrek orain arte zeukan arauketan, hari buruzko lehenengo arauketa eskusibo eta espezifikoa baita. Ordura arte, lotura berezia zuenez Ondasun Higiezin-en gaineko Zergarekin, zerga horren zerga-oinarriaren bidez, eta zerga horretarako beharrezkoa zenez ondasun higiezin-en katastro-balioa aplikatzea, Katastroaren araubidea arau fiskal baten bidez erabatu zegoen, alegia, Ondasun Higiezin-en gaineko Zergari buruzko 1989ko ekainaren 30eko 9/1989 Foru Arauaren bidez.

Gainera, Higiezin-en Foru Katastroa berri eta berrantolatze-ko ekimen berritzaile hori osatzeko, katastro-balioen txosten berriak onartzeko prozedura izapidetu du Bizkaiko Foru Aldundiak —hasieran, hiri- eta landa-ondasun higiezinentzat—, arlo horretan duen eskumen eskusiboa erabiliz eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalekin lankidetzan.

2016ko maiatzaren 18ko 3/2016 Foru Arauak, modu kontinuitan, aurreko araudiaren funtsezko zatia jasotzen du, baina araudi hori sistematizatzeko eta osatzeko ahalegina egin da eta, gainera, berrikuntza kontzeptual garrantzitsuak ere badakartza, Higiezin-en Katastroa, katastroko elementua edo ezaugarri bereziko ondasun higiezinak definitzen dira eta. Antolaketa arloko berrikuntzak ere badaude, Katastroa kudeatzeko, esaterako, katastroko aldaketak deklaratu, komunikatu eta erregularizatzeko prozedurak arautzen dira, bai eta desadostasunak ongitu eta zuzentzeko prozedura zein Katastroa eguneratzekoa ere. Katastro-balioei dagokienez, haiek zehazteko irizpideak eta prozedura finkatzen dira; baliook zehazteko, bada, dagokion balio-txostena onetsi eta aplikatuko da.

Foru arauan bertan sarritan aipatzen da zenbait gauza erregelamendu bidez garatuko direla; beraz, ezinbestekoa zen helburu horretarako arau bat ematea, besteak beste, hauetarako: finkatzeko zer baldintzarekin zehaztu behar diren katastroko kartografia prestatu eta kudeatzeko udalekin sinatu beharreko lankidetzak-hitzarmenak, katastroko elementu bakoitza identifikatzen duen katastroko erreferentzia definitzeko, katastroko aldaketak komunikatzeko zer epe dagoen finkatzeko, zehazteko desadostasunak ongitzeko eskabideak izapidetzeko ez onartzeko dagoen tolerantzia teknikoaren marjina eta, azkenik, arauan jasotzen diren gainerako prozeduren arauketa osatzeko.

Erregelamendu hau Bizkaiko Lurralde Historikoko Higiezin-en Foru Katastroari buruzko Foru Arauaren lehenengo azken xedapenean arau hori garatzeko jasotzen den baimena erabiliz ematen da, eta 23 artikulua ditu, atariko tituluan eta beste titulu bitan banatuta.

DISPOSICIONES FINALES

Primera

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

Segunda

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 28 de junio de 2016.

El diputado foral de Hacienda y Finanzas,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

El Diputado General en funciones
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ,
(En virtud Decreto Foral
del Diputado General 83/2016, de 17 junio)

(I-782)

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 118/2016, de 28 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia.

La reciente aprobación de la Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, ha supuesto una especial innovación con respecto a la regulación de este registro administrativo existente hasta este momento, por constituir la primera regulación exclusiva y específica del mismo. Hasta entonces, la especial conexión con el Impuesto sobre Bienes Inmuebles, a través de la base imponible de dicho impuesto para lo cual es imprescindible la aplicación del valor catastral de los bienes inmuebles, ha determinado que su régimen estuviera configurado en una norma de carácter fiscal, la Norma Foral 9/1989, de 30 de junio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

La tramitación de un procedimiento de aprobación de nuevas ponencias de valores catastrales, inicialmente para los bienes inmuebles de naturaleza urbana y rústica, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, en ejercicio de su competencia exclusiva y en colaboración con los ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia, completa esta innovadora iniciativa de renovación y reordenación del Catastro Inmobiliario Foral.

La Norma Foral 3/2016, de 18 de mayo, recoge de una manera continuista, la parte más esencial de la normativa anterior, a pesar de que se ha hecho un esfuerzo por sistematizarla y completarla pero, además, incorpora novedades destacables de tipo conceptual, definiendo el Catastro Inmobiliario, el elemento catastral o los bienes de características especiales. O de tipo organizativo en cuanto a la gestión del mismo, como la regulación de los procedimientos de declaración, comunicación, regularización de alteraciones catastrales, de subsanación de discrepancias y de rectificación, así como el de actualización catastral. Respecto a los valores catastrales, se fijan los criterios y el procedimiento para su determinación, mediante la aprobación y aplicación de la correspondiente ponencia de valores.

Son numerosas las remisiones que hace la citada Norma Foral al desarrollo reglamentario para completar algunos de sus preceptos, lo que hacía imprescindible una norma que cumpliera dicho cometido, como por ejemplo para la fijación de los términos en que deben suscribirse los convenios de colaboración con los Ayuntamientos para la elaboración y gestión de la cartografía catastral, para la definición de la referencia catastral que identifica a cada elemento catastral, para fijar los plazos en que deben comunicarse las alteraciones catastrales, la determinación del margen de tolerancia técnica que determina la inadmisión a trámite de las solicitudes de subsanación de discrepancias así como para terminar de completar la regulación de los procedimientos que se recogen, entre otras.

El presente Reglamento ha sido dictado en el ejercicio de la facultad de desarrollo recogida en la habilitación normativa contenida en la disposición final primera de la Norma Foral del Catastro Inmobiliario Foral del Territorio Histórico de Bizkaia y consta de 23 artículos distribuidos en un Título Preliminar y dos Títulos más.